

## HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN ITZULPENAK

Donostia, 1986-IX-26

Jose Antonio Arana Martija

Haur eta gazteentzat idatzitako literatura guztia sakabanatuta dago hainbat aldizkari eta argitalpenetan, azken urteotakoa izan ezik, oraingo honetan argitaldarien literaturaren arlo honekin gahiago arduratu dira eta, liburu sortak kaleratuz.

Baina hizkuntza batentzat hain interesgarria den literatura, hots, haurrek txikitatik hizkuntza meneratzeko tresna, ez da gure artean nahiko aztertua, edo beste era batera esateko, ez da literaturaren arlo honetaz ikerketarik egin. Hemen datorkigu lehen estudio bat **Euskera** gure aldizkarian argitaratzeko tokia eskatzen diguna.

Urte asko duela argitaratu zuen Bettina Hürliman-ek alemanez, *Tres siglos de literatura infantil europea*, orain hiru urte gaztelaniara itzulia eta 1983an Editorial Juventud-ek argitaratua. Eranskin gisa zetorren bertan gure Aita Villasantek prestatutako lana *La literatura infantil vasca*. Hurrengo urtean, 1984eko Irailean, Barcelonako Laia argitaldaria, bere "Cuadernos de Pedagogia" delako aldizkarian, beste lan bat emango zigan gai berberaz: *La literatura infantil en euskera*, Seve Callejak prestatua.

Gutxi zen benetan gure haur literaturari buruz idatzitakoa. Gaztelaniazkoak badauka aspalditik lan on bat argitaratua, 1953an Editorial Doncel-ek eman ziguna: *Historia de la literatura infantil española*, Carmen Bravo Villasantek paratua. Eta Catalunyan ere antzerako bat egin zen, orain hamar urte duelarik, Anabe elkarrean 1975ean argitaratua: *Llibres catalans per infants*, Teresa Rovirak prestatua.

Gure hutsunea betetzeko Eusko Jaurlaritzak emandako beka baten laguntzaz burututako lan bat datorkigu eskuetara: Seve Callejak eta Xabier Monasteriok egindakoa, hain zuzen. Gaia interesgarria bada, badu lan honek beste arrazoi bat ere guretzat estimagarria eta hemen azpimarratu behar duguna: Azkue Bibliotekan, bertoko fondoak erabiliaz, dokumentatua izan dela.

Ikerketa lan luzea dugu, zoritxarrez zatika argitaratua. Lehen kapitulu bat, hots, literaturari dagokion haur kontzeptua zer den, "Letras de Deusto" aldizkarian argitaratua da. Bigarren kapitulua, haur literaturaren ikuspegi historikoa, "Egan" aldizkariak emango digu berehala. Haurrentzat egin eta egiten den prentsaren estudioa "Muga" aldizkariak eman digu. **Euskera** aldizkarira datorkigun kapitulua zera da: *Haur eta gazteen-tzako liburuen itzulpenak*, beste literatura batzuetatik euskerara itzulitako testuez ikerketa eta azterketa.

Hogeitamar folio ditu kapituluak eta azkenean, eranskin gisa, titulu guztien katalogo bat ematen zaigu. Ez da katalogo hau alperrikakoa, ohizko bibliografietan ematen ez diren tituluak, egileak eta itzultzaileak azaltzen bait dira.